

Zer da UNESCO?





Zer da UNESCO?

- Zeinek osatzen dute?
- Nola hasi zen dena?
- Non dago bere egoitza?
- Nola dago egituratuta?
- Zein jarduera mota egiten ditu?
- Zein hizkuntza erabiltzen ditu?



Zer da UNESCO?

© UNESCO Etxea, 2003

Háblame de la UNESCO liburuan oinarrituta. Ediciones UNESCO. 2001. Paris

Koordinazioa: Monika Vázquez

Itzulpena: Bakun

Diseinua eta maketazioa: SERVISISTEM

Inprimaketa: GRAFICOLOR

Lege gordailua: BI-1442-01



Zer da UNESCO?

Nazio Batuak munduko bakearen alde lan egiten duen erakundea da eta beren borondatez batu diren herrialdeez osatuta dago.

Bakearen aldeko lan horri ekiteko, Nazio Batuen erakundeak gai jakinetan espezializatutako agenziak ditu, besteak beste, UNESCO.

UNESCO Nazio Batuek hezkuntza, zientzia eta kulturarako duten erakundea da.

UNESCOren **funtzioak** honako hauek dira:

- Gizarteek etorkizunean izango dituzten aldaketa handiak aurreikus- teko ikerketak egitea, eta hezkuntza, zientzia, kultura eta komuni- kazioaren etorkizunaz hausnartzea.
- Mundu osoko ikerlariak, hezitzaileak eta ikasleak beren ezagutza han- ditzeko lan egitea; ezagutza hori konpartitzea eta ahalik eta pertsona kopuru handienaren mesedetan erabiltzea.
- Lege unibertsalak sortzea, aldatzea eta estatu guztietan betearaztea.
- Estatuei garapenerako politiketan eta proiektuetan laguntzea.
- Argitarapenen eta teknologia berrien bidez, mundu osoan hezkun- tza, zientzia, kultura eta komunikazio gaiak buruzko informazio tru- kea erraztea.



Zer da UNESCO?



Zeinek osatzen dute?

Munduko bakearen eta segurtasunaren alde lan egiteko prest dauden herrialde guztiak UNESCOko kide izan daitezke; herrialde horiei estatu kideak esaten zaie.

Gaur egun, UNESCOk munduko hainbat lekutako **188 estatu kide eta 6 estatu elkartu** ditu. Horien arteko desberdintasuna honako hau da: estatu elkartuak beren kanpo harremanen eskumena ez duten lurraldeak dira, ezin dute parte hartu UNESCOren erabakietan eta ez dute posturik erakundearen administrazio kontseiluan.

Estatu kide bakoitzak UNESCOri diru ekarpen bat egin behar dio, eta hori bere botere ekonomikoaren arabera kalkulatzen da.

Derrigorrezko ekarpen horrez gain, estatu kideek UNESCOri diru laguntzak emateko aukera dute, erakundeak garapen bidean dauden herrialdeetan hezkuntza, zientzia eta kultura gaietan proiektuak egin ditzan.



Nola hasi zen dena?

1) 1942. urtean, Alemania naziari eta bere aliatuei aurre egiten ari ziren Europako herrialdeetako gobernuek Ingalaterran elkartu ziren, guda bukatu eta gero hezkuntza sistemak berreraikitzeko proiektu bat egiteko.

Proiektu horrek nazioartean gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen eta herrialde gehiago batu zitzaizkion.

2) Guda bukatu eta berehala, 1945eko azaroaren 1ean, Londresen 40 estatutako ordezkariak bildu zituen konferentzia egin zen. Han, Frantziaren eta Erresuma Batuen ekimenez, herrialdeen arteko bakearen kultura sustatzeko erakunde bat sortzea erabaki zuten.

3) **1945eko azaroaren 16an**, estatu horietatik 37k UNESCOren Konstituzioa sinatu zuten. 1946an indarrean jarri zen, 20 estatuk berretsita.

Konstituzio honetan honakoa esaten da: *"gudak gizakiarengan hasten direnez, bakearen zutabeak gizakiarengan eraiki behar dira"*. Honakoa ere adierazten da: *"historian zehar, herrien arteko elkar ulertu ezinak nazioen arteko mesfidantza eta errezeloa eragin ditu eta, askotan, desadostasun horientatik gudak sortu dira"*.

Horregatik, bake iraunkorra, egiazkoa eta onartua ezarri ahal izateko, Konstituzio horretan UNESCOk konpromiso hau hartzen du: hezkuntzaren, zientziaren eta kulturaren bidez, nazioen arteko harremanak garatzea eta sendotzea, elkar hobeto uler eta ezagut dezaten. Horrela, arraza, sexua, hizkuntza edo erlijioa edozein dela ere, Nazio Batuen Gutunak herri guztiei aitortzen dizkien justizia, legea, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunetik errespetu unibertsalaren alde egin ahal izango da.



Zer da UNESCO?



Non dago bere egoitza?

Lehendabiziko urteetan, UNESCO Majestic eraikinean ezarri zen, antzina hotel handi bat izan zen eraikinean, Pariseko Champs Elyséesetatik hurbil.

UNESCOn egoitza 1958ko azaroaren 3an zabaldu zen, **Pariseko Fontenoy enparantzan**. Eraikinak "Y" itxura zuen –"hiru puntako izarra" izenez ezagutzen zen–eta hiru herrialdetako hiru arkitektoek diseinatu zuten.

Ondoren, aurrekoari hiru eraikin gehitu zitzaizkion: osoko bilerak egiteko erabiltzen zen akordeoi itxurako bat; kubo itxurako bigarren bat, eta, azkena, zorupean, bi solairukoa, bulegoetarako.

Eraikin horiek guztiek artelan ugari dituzte, horietako batzuk artista ospetsuei eskatutakoak eta beste batzuk UNESCOko estatu kideek emandakoak.



Nola dago egituratuta?

UNESCO hiru organo nagusitan egituratuta dago:

- **Batzar Nagusia.** UNESCOren organorik garrantzitsuena da. Estatu kideetako ordezkariak osatzen dute eta erakundearen programak ezartzeaz eta aurrekontuak onartzeaz arduratzen da. Horretarako, bi urtetik behin biltzen da eta estatu kide bakoitzak boto bat du, horren azalera eta UNESCOren aurrekontuari egiten dion ekarpena edozein dela ere. Batzar horietara, kideak ez diren estatuetako behatzaileak edo nazioarteko erakundeak ere joan daitezke.
- **Kontseilu Exekutiboa.** UNESCOren administrazio kontseilua da. Batzar Nagusiak hautatutako 58 estatu kidez osatuta dago. Hautaketa horretan, kultura eta jatorri desberdineko ordezkariak aukeratzeko dira, munduko eskualdeetako ordezkariak aukeratzeko dira, munduko eskualdeetako ordezkariak aukeratzeko dira, munduko eskualdeetako ordezkariak aukeratzeko dira, munduko eskualdeetako ordezkariak aukeratzeko dira. Kontseilu Exekutiboak Batzar Nagusia prestatzen du eta horretan hartutako erabakiak era egokian gauzatzen direla gainbegiratzeko ardura du. Xede horrekin bi urtetik behin biltzen da.
- **Idazkaritza eta Zuzendari Nagusia.** Batzar Nagusiak sei urtetik behin Zuzendari Nagusia aukeratu du. Gaur egun Koichiro Matsura japoniarra du kargu hori, 1999an hautatu zutenetik.

Zuzendari Nagusiaren agindupean, Idazkaritzak Batzar Nagusiak onartutako programak martxan jartzen ditu. Idazkaritzan, gutxi gorabehera, nazioarteko 1.800 funtzionariok egiten dute lan: 1.200 inguruk UNESCOren Pariseko egoitzan eta gainerakoak UNESCO munduko hainbat tokitan dituen bulegoetan.

Organo horiez gain, UNESCOk, munduko bakearen eta segurtasunaren alde lan egiten laguntzeko, **nazioarteko beste egitura eta sare batzuk ere baditu:**



Zer da UNESCO?

- **Egoitzatik kanpoko bulegoak.** UNESCOk, gutxi gorabehera, 73 bulego ditu Pariseko egoitza nagusitik kanpo. Horiek, tokian tokiko esparruan erakundearen ekintzak koordinatzeaz arduratzen dira.
- **Batzorde Nazionalak.** Estatu kide eta estatu elkartu gehienek, beren herrialdeetan, UNESCOrako Batzorde Nazionalak sortu dituzte. Gaur egun, 189 Batzorde Nazional daude eta hezkuntza, zientzia eta kulturaren esparruetako ordezkariak osatzen dituzte. Batzorde horien eginkizunak honako hauek dira: UNESCOren programak lantzea, martxan jartzea eta ebaluatzea; erakundeari buruzko informazioa zabaltzea; eta gobernuen eta UNESCOren arteko bitartekaritza lana egitea.
- **Organo subsidiarioak.** Azterketa espezifikoak edo zenbait eginkizun egiteko, UNESCOk, gutxi gorabehera, 100 organo subsidiarioen laguntza du. Horiek hainbat izendapen hartu dituzte: kontsulta batzordeak, nazioarteko batzordeak edo nazioarteko kontseiluak. Adibidez, 1992tik 1999ra, UNESCOk XXI. mendeko Hezkuntzaren Nazioarteko Batzordearen laguntza izan du. Erakunde horren zuzendaria Jacques Delors da eta mundu osoko adituek osatzen dute. Batzorde horrek mende honetako hezkuntza nolakoa izan daitekeen aztertzen eta horren inguruko hausnarketa egiten lagundu du. Organo subsidiarioek egiten duten lanak lagundu egiten dio UNESCOri bere politikak eta jarduera ildoak orientatzen.
- **UNESCOrekin elkartutako eskolak.** 1953. urtean, UNESCOrekin elkartutako mundu mailako eskola sarea sortu zen, gazteak bi balio nagusitan hezteko: tolerantzian eta nazioartean elkar ulertzean. Gaur egun, mundu osoko 170 herrialdetan UNESCOrekin elkartutako 7.000 eskola inguru daude. Eskola horiek, indibidualki zein sareko beste eskola batzuekin lankidetzan, lau gaitan egiten dute lan, batez ere:



- Munduko arazoak eta horien aurrean Nazio Batuek duten eginkizuna;
- Giza eskubideak eta demokrazia;
- Kulturarteko ikasketa;
- Ingurumenaren babesa.

• **UNESCO zentroak, elkarteak eta klubak.** UNESCO zentroak, elkarteak eta klubak, UNESCOk defendatzen dituen baloreekin bat egiten duten edozein gizarte eta lanbide esparrutako pertsona taldeak dira. Horien helburua UNESCO ezagutaraztea da, bere ideiak eta programak zabaltzea eta UNESCOren ekimenekin bat datozen ekimenak egitea. Gaur egun, mundu osoan horrelako 6.000 erakunde inguru dago.

• **Bitartekariak.** UNESCO Nazio Batuetako nazioarteko beste agenzia batzuekin lankidetzan aritzen da. Gobernuz kanpoko 588 erakunderekin harreman ofizialak ditu eta aldizkako harremanak, berriz, beste 1.200ekin.

• **Borondate oneko enbaxadoreak.** Borondateko oneko enbaxadoreak beren lanbideari edo jardueri esker nazioarteko ospea duten pertsonak dira. Pertsona horiei, UNESCOk munduan bere lanak zabaltzeko eta sustatzeko eginkizuna ematen die. Enbaxadore horien artean, besteak beste, honakoak daude: Pele futbolaria, Michael Schumacher auto gidaria, Catherine Deneuve aktorea eta Rigoberta Menchú Bakearen Nobel sariduna.



Zer da UNESCO?



Zein jarduera mota egiten ditu?

UNESCOK bere lana, batez ere, hezkuntza, zientzia, kultura eta komunikazioaren esparruetan egiten du. Hauek dira esparru horietan egiten dituen jardueretako batzuk:

• Hezkuntza

Hasi zenean, UNESCOren eginbehar nagusia II. Mundu Gerran zehar desagertutako hezkuntza sistemak berriz martxan jartzea izan zen. Horrez gain, Europan beren bildumak suntsituta edo sakabana-tuta zituzten museoak eta liburutegiak sustatu zituen.

Hirurogeiko hamarkadan, UNESCOK analfabetismoaren aurkako mundu mailako programa jarri zuen abaian, eta gaur egun ere horretan dirau. Programa horren bidez, munduan irakurtzen eta idazten ez dakien pertsona kopurua murrizten ari da pixkanaka. Baina oraindik asko dago egiteko: 2000. urtean Dakarren egin zen Hezkuntzaren Mundu Mailako Foroan kalkulatu zenez, 880 milioi helduk –munduko biztanleriaren %20– ez dakite ez irakurtzen, ez eta idazten ere.

Horri aurre egiteko, UNESCOK beste lan ildo bat dauka. Horren xede nagusia munduko ume guztiei oinarritzko hezkuntza bermatzea da. 1990. urtean eskolara joaten ez zen ume kopurua 127 milioiokoa zen, eta 2001. urtean, aldiz, kopuru hori 113 milioira murriztu da.

• Munduko ondarearen zainketa

UNESCOK bere interes historiko, kultural, geografiko edo naturalagatik "aparteko balio unibertsala" duten munduko tokiak babesten ditu.

Gaur egun, UNESCOren munduko kultur eta natur ondarea, 112 herrialdetako 691 lekuk osatzen dute. Beharrezkoa den kasuetan, leku horiek berreraiki, zaindu eta babestu egiten dira, gizateriak horietaz goza dezan.



- **Artelanen lapurreten aurkako borroka**

1970. urtetik, UNESCOk lapurtutako balio kultural handiko artelanak berreskuratzearen ardura hartu du, herrien iraganaren testigantza direlako. Duela gutxi, UNESCOk jakitera eman zuenez, lapurtutako kultur ondasunen %5 edo %10 baino ezin izango da berreskuratu, eta hori kultur galera handia da.

- **Lanen eta ezagutzen transmisioa**

Hasieran, UNESCOk itzulpen programa zabala jarri zuen abian, Afrikako, Europako, Ozeaniako, Ekialdeko, Hegoamerikako eta kreole kulturako testu klasiko eta garaikideak zabaltzeko.

Jarduera horretaz gain, 1952. urtetik –UNESCOk egile eskubideen babesari buruzko konbentzioari bere laguntza eman zion urtea– idatzitako obretan kontrolatu gabeko merkataritza ustiapena ekiditeaz arduratzen da.

- **Gizateriaren eta kontinenteen historia idaztea**

UNESCOk badu beste ardura bat: gizateriari ezagunak ez diren herri eta kulturen aberastasunak ezagutzeko aukera ematen dioten lanak argitaratzea; ildo horretan, gizateriaren historia hobeto ezagutzeko aukera ematen duten lanak ere argitaratzen ditu.

Orain arte, UNESCOk honakoak argitaratu ditu: "Afrikako historia orokorra", "Erdialdeko Asiako zibilizazioen historia", "Gizateriaren kultur eta zientzi garapenaren historia" eta "Gizateriaren historia". Horiez gain, Latinoamerikako eta Karibeko historiari buruzko argitarapenak prestatzen ari da.

- **Alexandriako liburutegiaren sorrera**

1968tik, UNESCOk Egiptori Alexandriar liburutegi handi bat diseinatzeko eta eraikitzen laguntzen dio. Liburutegi horrek tradizioak diogenaren arabera K.a. I. mendean Zesarren armadak suntsitu zuen liburutegi haren lekua hartu nahi du.



Zer da UNESCO?

• Ahozko eta kultur ondarea kontserbatzea eta zabaltea

UNESCOK ahozko kultur ondarea eta kultur ondare inmateriala –hau da, besteak beste: ohiturak, dantzak, ahozko tradizioak, arte eszenikoak, artisautzako teknikak eta abar– babesteko eta ezagutzera emateko lan ildo bat du.

Industrializazioaren eta mundializazioaren ondorioz, ondare hori desagertzeko zorian dago eta UNESCOK hori ez gertatzeko lan egiten du; izan ere, gure iraganaren ondarea eta herrien identitatearen erakusgarria da, eta hori gizateriarentzat aberastasun handia da.

Lan ildo horren adibidetzat honako baik aipa ditzakegu: 1949an sortutako Musikaren Nazioarteko Kontseilua, edo Linguapax, hizkuntza aniztasunaren azterketan eta kontserbazioan aritzen den programa.

• Ekimen zientifikoa

UNESCOK herrialdeen arteko lankidetzat zientifikoa sustatu behar du, garapen iraunkorraren eta solidarioaren alde egiteko, gure ondorengo belaunaldiei planeta egoera onean uzteko aukera izan dezagun.

Ido horretan, aukera gutxien duten herrialdeei bizi baldintzak hobetzeko baliagarriak izango zaizkien teknikak eta ezagutzak eskaintzen dizkie. Lan ildo horren adibidetzat, honakoak aipa ditzake: elektrizitaterik ez duten lekuetan eguzki energia eta energia eolikoa sustatzen duten programak edo planetako eskualde elkorrak edo erdi elkorrak urez hornitzeko programak. Izan ere, Lurra-zen azaleraren %4 betetzen badute ere, munduko ur emariaren %2 soilik baitute.



• Biosferak eta ekosistemak kontserbatzea eta babestea

Biosfera gizakiak, animaliak eta landareak bizi diren ingurumena da: lurra, ozeanoak, atmosfera...

Gorantz doan garapen ekonomikoa dela eta, gero eta baliabide biologiko gehiago erabiltzen dira. Zalantzarik gabe, horrek animalia, landare eta mikroorganismo aniztasunaren kontserbazioari eta ekosistemaren orekari eragiten dio. Horren aurka borrokatzeko, UNESCOk lurraren zenbait eskualde babestea erabaki zuen, eta eskualde horiei "biosferaren erreserbak" izena ezarri zien. Erreserba horietan, naturaren baliabide guztiak kontserbatzen eta aztertzen dira: mendeetan zehar nola ustiatu diren, etab. Hortik lortzen den informazio guztia herrialde guztien eskura jartzen da. Eremu babestu horien artean, Urdaibai (Bizkaia) –1984. urtean biosfera izendatua– eta Bardeetako Natur Parkea (Nafarroa) –2000. urtean izendatua– daude.

Eremu horiek munduko 94 herrialdetan dauden biosferaren erreserben arteko bi dira.

• Biztanleria kontzientziatzea

UNESCOk IHESaren aurkako programak garatzen ditu. Programa horien eginkizun nagusia honakoa da: alde batetik, ikastetxeetako irakasleentzat eta ikasleentzat material didaktikoa sortzea, eta, bestetik, gobernuari sentsibilizazio programak sor ditzaten eskatzea.

• Ekintza etikoa

UNESCOren beste eginkizunetako bat zientziari eta teknikari kode moral bat ematea da. UNESCOren arabera, estatuek ados jarri beharra dute ikerkuntza zientifikoaren gehiegikeriak ekiditeko edo mugatzeko. Ildo horretan, Bioetikako Nazioarteko Batzordea sortu zuen (1993), ikerkuntza zientifikoaren ondorio sozialak eta humanoak ekiditeko. Xede horrekin, Genoma eta Giza Eskubideei buruzko Adierazpen bat idatzi zuen (1997).



• Demokrazia sustatzea eta defendatzea

UNESCO demokrazia sustatzen eta defendatzen saiatzen da; batez ere, oraindik demokrazia ezarri ez den herrialdeetan eta guda zibila edo erregimen autoritarioa jasan berri dutenetan. Xede horrekin, UNESCOk hainbat lekutan esku hartu du, besteak beste: Erdialdeko Amerikan (El Salvador, 1991), Ekialdeko Europa-ko herrialdeetan (90. hamarkadaren bukaeran), Afrikan (Angola, Somalia), Jugoslavia ohian... Leku horietan guztietan, UNESCOk gatazkan ari diren aldeen arteko elkarriketaren alde egin du eta protagonistak gatazkei indarkeriarik gabeko irtenbideak bilatzeko prestatu ditu.

Ildo berean, UNESCOk bakearen kultura sustatzeko jarduerak jarri ditu abian, indarrean dagoen indarkeriaren eta gudaren kultura ordezkatu ahal izateko. Nazio Batuek 2000. urtea Bake Kulturako Nazioarteko Urtea izendatu zuen. Horren aurretik, 1999an, UNESCOk bakezko eta indarkeriarik gabeko kulturaren aldeko 2000 Manifestua aurkeztu zuen. Manifestu hori Nobel saridun talde batek sortu du, hainbat hizkuntzatara itzuli eta munduan zabaldu zedin. Agiri horren sinatzaileek bakearen kulturaren aldeko zerbait ekintza egiteko eta jarrera jakin batzuk hartzeko konpromisoa hartu dute.

Ekimen horri jarraipena emateko, UNESCO munduko umeentzako Bakezko eta indarkeriarik gabeko kulturaren nazioarteko 2001-2010. hamarkada ospatzen ari da.

Jarduera guztien errepasoa egin eta gero, **argi eta garbi esan dezakegu UNESCO bere eskumeneko esparruetan munduaren erronka handien aurrean zabalik dagoen erakundea dela: guztiontzako hezkuntza, garapenaren zerbitzurako zientzia, munduko kultur eta natur ondarearen kontserbazioa, giza eskubideak, munduko bakea eta kulturen arteko elkarriketa.**



Zein hizkuntza erabiltzen ditu?

UNESCOK hizkuntza hauek erabiltzen ditu: **espainiera, ingelera, frantsesa, errusiera, arabiera eta txinera.**

Batzar Nagusia egiten denean –estatu kide guztiek hartzen dute parte–, hizkuntza horietara guztietara itzulpenak egiten dira.



Zer da UNESCO?

0

Orain, ea zer dakizuen UNESCOri buruz:

1. Zein dira UNESCOren eginkizunak?
2. Zer dira UNESCOren estatu kideak?
3. Noiz sinatu zen UNESCOren Konstituzioa?
4. Zein dira UNESCOren hiru organo nagusiak?
5. Zein da Kontseilu Exekutiboaren eginkizuna?
6. Zein da UNESCOren Zuzendari Nagusia?
7. Zer dira UNESCOrekin elkartutako eskolak?
8. Zein dira borondate oneko enbaxadoreak?
9. Zein dira UNESCOren ekimen nagusiak hezkuntzaren esparruan?
10. Zer dira Biosferaren Erreserbak? Aipatu adibide bat.
11. Zein hizkuntza erabiltzen dira UNESCOn?



H

Helbide Interesgarriak

- UNESCOri buruzko informazio orokorra
<http://www.unesco.org>
- Historia
<http://www.unesco.org/general/eng/about/history>
- Batzar Nagusia
<http://www.unesco.org/confgen>
- Kontseilu Exekutiboa
<http://www.unesco.org/exboard>
- UNESCOko kideak
<http://www.unesco.org/general/eng/about/members.shtml#estados>
- UNESCOrekin elkartutako eskolak
<http://www.unesco.org/education/asp>
- UNESCO zentroak, klubak eta elkarteak
<http://www.unesco.org/ncp/clubs>
- UNESCOrako Batzorde Nazionalak
<http://www.unesco.org/ncp>
- GKE
<http://erc.unesco.org/ong>
- UNESCOren programak
<http://www.unesco.org/general/eng/about/budget.shtml>
- UNESCO Mab programa
<http://www.unesco.org/mab>
- UNESCOren argitarapenak
<http://upo.unesco.org>
- Bake kultura
<http://www.unesco.org/cpp>
- Kultura eta garapena
<http://www.unesco.org/culture/development>
- Hezkuntza
<http://www.unesco.org/education>
- Guztiontzako hezkuntza
<http://www.unesco.org/education/efa>
- Zientzia
<http://www.unesco.org/science>
- Munduko ondarea
<http://whc.unesco.org/> Patrimonio mundial
- Nola lagundu UNESCOri
<http://www.unesco.org/general/eng/about/help.shtml>



Zer da UNESCO?

Un UNESCOren jardueren berri jakin nahi baduzu...



Bisita ezazu **UNESCO Etxea**.
Han, erakunde honi buruzko informazio
zehatza duten dokumentazio zentro bat
eta liburutegi bat erabili ahal izango
dituzu.

UNESCO Etxearen Helbidea:

Urquijo Zumardia, 60 nag. esk.

48011 BILBAO (Bizkaia)

Telf: 34 94 4276432

Faxa: 34 94 4272548

e-posta: info@unescoeh.org

www.unescoeh.org

